

Ale honetan

Aurkezpena 1

Gela irekia

Olatz Bourgeaud Ikasleen erroreen aurrean gure jokabideak 3
Begoña Escudero Nobela baten lanketaren historia 10

Ikerketak

Josu Perales Ezagutzeko eta ikasteko estiloak: gaia zertan den 18
Josu Perales Hizkuntzak ikasteari buruzko usteak: gaia zertan den 29

Euskararen Kutxa

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka Galdegai-lekua testu hastapenetan (i) 39

Bestelako lankidetzak

Belene Salazar Bizkaiera euskaltegian 57

Beste iturrietatik

Anita L. Wenden Ikaslearen garapena hizkuntzaren ikaskuntzan 65

HIZPIDE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA

HARPIDETZA-ORRIA



Izen-deiturak:

Kalea:

Zenbakia:

Herria eta Pk:

Probintzia:

Hizpide aldizkaria jaso nahi dut etxean. 2003an hiru ale:

11,44 € . Honela ordainduko dut:

☐ Kontu korronte bidez

Bankua edo Aurrezki-Kutxa:


Sukurtsala:

Zenbakia:

☐ Transferentziaz (Kutxa 2101.0381.01.0003069002)

☐ HABEren izenean luzaturiko txkeez

☐ Errenboltsoz



Helbide honetara bidali behar da:

HIZPIDE aldizkaria

Vitoria-Gasteiz, 3

20018 Donostia

Formulario honetako datuak fitxategi automatizatu batean bilduko dira, HABEK aldizkaria jasotzeko eskabideak kudeatu ahal izateko. Fitxategi datuetara sartzeko, datuak aldatu edo deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, HABEra jo dezakezue. Vitoria-Gasteiz kalea, 3-6. 20018 Donostia.



Aurkezpena

Iritsi gara, irakurle, aurtengo azken alera. Berrogeita hamalaugarrena da. Hel diezaiogun mamia ikusteari:

Gela irekia.— Lehenengo artikulua Arrigorriagako Udal euskaltegitik datorkigu, Olatz Bourgeaud irakaslearen eskutik. Izenburua: “*Ikasleen erreteen aurrean gure jokabideak*”. Berezko parte dira erroreak hizkuntzaren ikas-prozesuan. Eta adostasun handia dago hizkuntza irakaskuntzaren alorrean H₂ hitz egiten, batez ere hitz eginez ikasten dela aitortzean. Olatz Bourgeaud irakasleak bi ataletan banatu du artikulua: a) idatzizkoaren zuzenketa eta b) ahozkoaren zuzenketa. Eta, teoria lagun, euskaltegiko ikasleen ekoizpen-errorei irakasleek nola egiten dieten aurre azalduko digu, bertan erabiltzen dituzten zuzenketa-teknika eta jokabideen berri emanez.

“*Nobela baten lanketaren historia*” artikulua Begoña Escudero Santurtziko Udal Euskaltegiko irakasleak idatzi du. Norbaiti irudituko zaio, agian, xede-hizkuntzan idatzitako literatur lanak: eleberriak, entseguak etab. xede-hizkuntza hori ikasi eta gero irakurtzeko direla. Hala ere, laguntza handikoak izan daitezke ikas-prozesuan bertan ere. Artikulugileak, Begoña Escudero irakasleak, Unai Elorriagaren nobela entzutetsua “*SPrako tranbia*” ikasgelan lantzeko zergatik aukeratu zuten azalduko digu baita bera jorratzeko zer-nolako ariketak sortu eta erabiltzen dituzten ere. Literatura ez da, artikulua honetan berriro ere ikus dezakegunez, bigarren hizkuntza ikasteko prozesutik at dagoen zerbait edota soilik azken etapetan erabil daitekeen baliabidea. Arestian esan bezala, laguntza handikoa izan daiteke ikas-prozesu osoan zer aukeratzeko den eta nola erabiltzeko den.

Ikerketak.— Hurrengo artikulua Josu Peralesek idatzi du: “*Ezagutzeko eta ikasteko estiloak: gaia zertan den*”. Ez dugu denok berdina ikasten. Eta inguruneari ere ez diogu denok modu berean begiratzen ez antzematen. Batzuek esaten dute gauzak “entzun” egiten dituztela. Beste batzuek “ikusi” eta beste zenbaitek, berriz, “sumatu” egiten dituzte. Eta ez dago esaterik estilo bat bestea baino okerragoa denik baldin eta norbaiti helburua lortzeko balio badio. Artikulu honetan, gaur egun estiloei buruz daki-guna, labur eta era irakurterazean, azaldu nahi du artikulugileak.

Artikulugile beraren eskutik dator, era berean, “*Hizkuntzak ikasteari buruzko usteak: gaia zertan den*”. Askok uste dute euskara ikastea oso zaila dela are —edo agian, batez ere— euskara ikasten inoiz aritu ez direnek ere. Baina usteak zuzenak edo okerrak izan litezke. Sendiak uste izango du ariketa-mota jakin bat eginda ikasiko duela ongien. Urliak, berriz, xede-hizkuntzaren hiztunekin jardun nahiago izango du, ikasgela-

ko ariketa oro bazter utzirik. Artikulugilea ahaleginduko da, aurreko artikuluan bezala, ahalik eta erarik eguneratuenean eta ulerterrazenean jorratzen ari den aldagaiaren nondik norakoak azaltzen.

Euskararen kutxa.– Zein esaldi ulertzen da lehenago “Nik goizean euskaraz ez dakien Arranondoko 26 urteko neska bat ezagutu dut” edo “Nik goizean ezagutu dut euskaraz ez dakien Arranondoko 25 urteko neska bat”. Jorratua dugu lehen ere aldizkari honetan galdegaiaren auzia. Bistan da gai hau hari ugariko mataza dela, berehala agortzen ez den horietakoa. Oraingoan ere Mitxel Kaltzakorta Mentxaka, Mondragon unibertsitateko irakaslea dugu artikugile. Bi idazle –Duvoisin eta Urruzuno– punta-puntakoren idazlanak hartu eta Altuberen legea, galdegaiaren kokapenari dagokiona, zenbateraino betetzen den aztertzeari ekingo dio. “*Galdegai-lekua testu hastapenetan (i)*” da bere artikulua izenburua.

Bestelako lankidetzak.– Hurrengo artikulua Belene Salazar Santurtziko Udal Euskaltegiko irakasleak idatzi du eta “*Bizkaiera euskaltegian*” da izenburua. Artikulu horretara, H₂ren ikas-prozesuaren gaineko zenbait hausnarketa bildu ditu Belene Salazar irakasleak, irakurriko duenak ere hausnarketa egin eta, hizkuntzen irakaskuntzaren inguruan, bueltaka, batetik bestera gabiltzanon zereginen zerrenda osatu eta txukundu dezan. Belene Salazar ez dator *Bizkaiera* ken *Batua* erako inongo “eragiketarik” proposatzera. Aitzitik, *Batua* gehi *Bizkaiera* da iradokitzen diguna.

Beste iturrietatik.– “*Ikaslearen garapena hizkuntzaren ikaskuntzan*” Horra hor, Anita. L. Wenden-ek idatzi duen artikulua izenburua. Wenden irakaslea hizkuntza atzerritarren sailean ari da York College-n, New York-en. Eta artikulu mamitsua idatzi du. Bertan “ikaslearen garapena” kontzeptua jorratzen du. Ikaslearen garapena da AH/H₂ren irakaskuntzan gertatu eta ikaslearengan ardaztu den berrikuntza bat, ikasleen arteko aldeei hizkuntza ikasteko gaitasuna handituz erantzun nahi diena. Lehenik, ikuspegi orokor bat ematen da ikaslearengan ardazturiko hizkuntz irakaskuntza definitzen duten kontzeptuen eta praktiken gainekoa. Gero, sorrerako ideiak, ikaslearen garapeneko lehen praktikak bultzatuak, deskribatzen dira, eta, orobat, ideia horiek munduko toki askotako hizkuntz programetan gauzatzeak ekarri zituen aldaketak. Hurrena, ikaslearen garapenean erabilitako teoriak eta praktikak ebaluatzen dira, BHEren alorreko teoria hautatu batzuen ikuspegitik. Ondorioan, iradokizunak eskaintzen dira etorkizuneko urratsetarako.

Hizpidek probetxuzkoa izan dakizula opa dizu.